

Komunitatean sexu eskubideak eta ugalketa eskubideak sendotu emakumeen eta gazteen lidergoaren bidez

Tokiko erakundea: [CREA](#), Akansha Sewa Sadan, Nari Didhi, Gramonnati Sansthan, Sakar, Mahila Swarozgar Samiti

Iraupena: 2018ko azaroa – 2020ko abendua

Zenbatekoa: 764.968,63 €

Finantzaketa: [Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia](#) eta tokiko ekarpena

Laburpena:

Egitasmo honekin emakumeen eta nesken eskubideak sustatu nahi ditugu, bereziki sexu eta ugalketa eskubideak, hainbat kolektibo komunitarioetako emakumezkoak antolatuz, gaituz eta ahaldunduz, modu iraunkor, eraginkor eta partehartzailean aldaketa bat lideratu dezaten komunitatean eta politikan eragiteko ekintzen bidez, Uttar Pradesh, Bihar eta Jharkhand estatuetan. Horretarako, ardatzak izango dira:



- Zenbait emakume talderen lidergo gaitasuna indartu, emakume liderrak prestatuz, maila komunitarioan eta instituzionalean gaitasunak sustatu ditzaten emakumeen eta nesken sexu eta ugalketa eskubideei buruz, eta eskubide horiek modu iraunkorrean defendatu eta sustatu ditzaten Bihar eta Uttar Pradesh Estatuetauako lau barrutietan.
- Emakumeek lideratutako gizarte erakundeen gaitasunak eta kudeaketa indartu, eta Uttar Pradesh eta Bihar estatuetan maila komunitarioan emakumeen eta nesken Eskubideak babesteko sarean diharduten erakundeen kopurua handituko dugu.
- Emakume gazte eta nerabeen eta haien tutore eta/edo amen gaitasunak indartu, eskubide subjektu sentitu daitezten eta beren gain har ditzaten beren eskubideen defentsa, bereziki sexu eta ugalketa eskubideena.
- Sareko lan estrategiak sustatu instituzio politiko, sozial eta sanitarioen, emakume, nerabe eta gazte erakundeen, eta gaitutako komunitateetako emakumeen artean, Uttar Pradesh eta Bihar estatuetan.